



Ekipoa	Erregai-banatzailetan II. faseko gasak berreskuratzeko sistema aktiboa
Kodea	B-2015
Ingurumen-hobekuntza	Erregaiak hornitzeko garaian KOLen emisioak prebenitzen dira, eta % 75–80 inguruko eraginkortasun-indizea lortzen da KOLak.
Honetan datza:	<p>Zerbitzugune batean bi fase bereizten dira erregaien garraioan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - I. fasea: erregaia zisterna-kamioitik biltegitzako andelera garraiatzea. - II. fasea: erregaia biltegitzako andeletik erabiltzaileen ibilgailura garraiatzea. <p>Ibilgailuen erregai-deposituetan, erregai likidoak libre uzten duen espazioa erregai-gasekin beteta dago, eta gas horiek KOLak dituzte. Erregaiak hornitzeko garaian, gas horiek atmosferara igortzen dira, deposituaren ahotik. Emisio horiek eragotz daitezke, II. faseko lurrinak berreskuratzeko sistema bat jarrita.</p> <p>Pistolak hartzen ditu gasak eta tutu malguaren bidez iristen dira erregaia gordetzeko lurrarpiko andeletaraino. Erregai-mahukak egitura ardazkidea du, eta malgua da. Mahukak, barneko (edo kanpoko) hoditik, erregaia eramaten du erregai-banatzailetik ibilgailuaren erregai-depositura, eta kanpoko (edo barneko) hoditik lurrina ateratzen du. Erregai-banatzailan, erregai-mahuka eta lurrin-mahuka bereizten dira, eta azken hori erregaia biltegitzako andeletara konektatuta dago.</p> <p>II. faseko berreskuratzeko sistemak zeharkako eragina du lurrarpiko erregai-andeletako ihes-emisioetan. Izan ere, berreskuratzeko lurrina birziklatu eta lurrarpiko andeletara bideratzen bada, gas horrek eragiten du erregaia ponpatzeko garaian aire gutxiago sartzea, eta, horren ondorioz, erregai gutxiago lurruntzen da lurrarpiko andeletan. Galera horietan II. faseko lurrina berreskuratzeko sistemak duen eragina ez dago erabat zehaztuta, eta erabilitako pistolaren arabera izango da, ziurrenik.</p> <p>Lurrinak berreskuratzeko sistema aktiboan metalezko erlaitz bat eranstean zaio pistolari. Huts-ponpa baten bidez, behe presioa sortzen da zulo biribil batean, eta handik berreskuratzen da lurrina.</p> <p>II. faseko lurrin aktiboko berreskuratzeko sistema baten osagaiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pistola berezia, drainatze-erlaitz bat duena. - Mahuka ardazkidea. - Proporzioak kontrolatzeko balbula: lurrin-korrontea erregulatzen du,



	<p>erregai-fluxuaren aldiuneko indizearen arabera.</p> <ul style="list-style-type: none">- Huts-ponpa. <p>Lurruna berreskuratzeko mahuka.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Teknika hau aplikatu daiteke erregaien hornigailu edo banatzailea duten sektore guztietan, adibidez, honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none">- Bilgailuentzako erregaien txikizkako salmenta (NACE 4730).